



28/2021 ALKATETZA DEKRETUA

Albizturren, 2021ko martxoaren 30a, eguerdiko hamabietan, udaletxeko bulego ofizialean, eta neronek, Oihan Ostolaza Arruabarrena, korporazioko idazkariak lagunduta, Iñaki Orbegozo Arrospide bere gain hartu du alkatetza eta zera dio:

Ikusirik, urtero moduan Albizturko udalak udaleku irekiak antolatu nahi dituela deialdia luzatzea erabaki du.

Ikusirik hiru begirale behar direla lan hori burutu ahal izateko.

Kontuan harturik udal honek ez duela inolako lan poltsarik lanpostu horiek betetzeko.

Kontuan harturik ohiko administrazio jakinarazpen moduak epez luzatzen direla.

Indarrean dagoen Toki Araubidea arautzen duen legediak alkatetzari ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz,

ERABAKI DUT

Lehena.- Albizturko Udalak antolatutako udaleku irekietan lan egiteko 3 begiraleren kontratazio espediente onartzea. Ondorengo baldintzekin:

Baldintzak:

- 18 urte beteta edukitzea
- **BALORAZIO IRIZPIDEAK ETA PUNTUAZIOA**
 - Euskara egoki menperatzea. PL 2a gutxienez izatea. Honela ez bada burutuko den elkarrizketan frogatu beharko du menperatze maila.
 - Herriaren ezagutza baloratuko da.
 - 2 puntu gehienez. Elkarrizketa bidez baloratuko da.
 - Begirale ikasketak edota hezkuntzarekin zer ikusia duten ikasketak.
 - Begirale ikastaroa izatea: 3 puntu
 - Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta: 2 puntu.
 - Eskarmentua izatea.
 - Udaleku ekitaldi bakoitzeko puntu bat. Gehienez 5 puntu

Bigarrena.- Udal iragarki taulan, udal web orrian eta lanbiden honen berri ematea, lanbide bidez bidali beharko direlarik eskaerak, izen emateko epea maiatzaren 15a bitartekoa izango delarik.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

2021KPOL0019

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsua aurkezteko Alkateari, hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsuaren ordeztu, edo errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik Aurrera. Errekurtsu hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Iñaki Orbegozo Arrospide
Alkatea

Oihan Ostolaza Arruabarrena
Idazkari Kontu-hartzailea